

## “ MUittu” Bizitza Unibertsitarioa.

2010/03/23

“ MUittu” Bizitza Unibertsitarioa mugimendua, MUko eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko gune ireki eta parte hartzailea da.

Mugimendu hau honako hauek jarri dute martxan: Kirol eta Osasun Zerbitzuak, Kultura Bekadunak, Ikasleen Kontseilu Sozialeko Idazkariak eta Biteri Ikastetxe Nagusiak.

Informazio gehiago nahi baduzu facebook-en ireki berri duten orrira jo dezakezu: <http://www.facebook.com/pages/MUittu-Bizitza-Unibertsitarioa/382922219739>

Orain arte profil pertsonal bat zuten, baina orain gutxi MU-ko ikasle eta langileekin harreman egokiago bat edukitzeko orri bat sortzea erabaki dute, honek abantaila gehiago baititu:

- MUitturen orritik lan eginez, ezin da zaleen profil pertsonaletara sartu.
- MUitturen orria publikoa da, edozeinek kontsulta dezake, baita facebook-en profil bat ez duenak ere.

Beraz, ekintza eskolaz kanpoko ekintzen berri jakin nahi izanez gero, **facebook**-en gaude. Baita **tuenti**-n ere.

